

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

UDAKO KONTZERTUA

2018ko uztailaren 7an - 18:30 - Oiartzungo Done Eztebe plazan

BOHAS ORCHESTRA (Gaskoinia)



Talde hau **Bohaires de Gasconha** elkarteko zati bat dugu. 1993an sortutako elkartearen helburua *Boha* izena hartzen duen *Gaskoiniako Landetako xiolarruaren* eta haizezko soinu-tresna herrikoi gaskoi guztien erabilpen eta espresioaren garapena da. Gaskoiniako Landetako xiolarrua jotzen, egiten, erakusten eta maite duten bolondresak elkarrekin honetan biltzen dituzte beraien indarrak elkartearen helburuaren aldeko ekintzak bultzatzeko; tartean uztailearen bukaeraren Soustons-en antolatzen duten **Festiv'CornemuseS** jaialdia. Elkarteko zenbait kidek beraien denbora librean eta ezagutzak ematen dituzte, eta guztiak moralki eta ekonomikoki babesten dute.

Bohak **Bohas Orkestran** biltzen

direnetik, Gaskonia eta Okzitaniako doinu osatutako egitaraua jotzen dute. Polifonia, gaskoiz kantatzea eta dantza elkarrekin eta partekatzen dira etenik gabe birsortzen den harmonian.

Baladak, abestiak, polkak edo rondoak, taldean, bikote eta bakarkako

saioekin tartekatuz, jotzen dira dantza borrek agintzen duten erritmoan.

Jai giroko musika da proposatzen dutena, nagusiki errepertorio herrikoiatik eraikitako egitaraua. Abestu, dantzatu eta berriaz musikaren inguruan elkartzeko benetako gonbidapena izan nahi du.

ETA
GOIZEAN

GASKOINIako HERRI DANTZAK

Lekua: KONTZEJUPE PLAZA
Kontzejupe plaza
20180 Oiartzun

Eguna: 2018-07-07

Ordua: 12:00

Bohas Orkestrako kideekin Gaskoinian eta Okzitanian egiten diren dantzei buruzko tailerra izango da Oiartzungo Kontzejupean.

Dantzazale helduei begira antolatutako ekintza da hau.

LAGUNTASUNA FANFARREA

(Barakaldo)



Laguntasuna Kultur Elkartea Barakaldon (Bizkaia) 1949am sortu zen eta bere ibilbide osoa herrian eta handik kanpo Euskal Kultura Herrikoa bere alor ezberdinetan sustatzen eman du: dantza, musika, abeslaritza, erraldoiak,...

Laguntasuna elkarteak 1997tik, Europako dantza herrikoien hainbat jaialditan parte hartu ondoren, **Laguntasuna Fanfarrearen** bidez bere ekitaldien artean erromeria edo zuzeneko musikarekin musika eta dantza saioa eskaintzen du.

Proposatzen duen emanaldiak, urte batzuetatik hona Europan topa daitezkeen dantzaldien antzeko eske-

marekin, oinarria Euskal Herriko eta Europako dantzetan du bere oinarria: jolas-dantzak, esku-dantzak, dantza-jauziak, polkak, eta sokan, binaka, lerroan,... egiten diren dantzak.

Dantza bere inguru naturala den plazan bultzatzeko asmoz, Laguntasuna Fanfarrea bere sorreratik lanpetuta ibili da era ezberdinetako ospakizun, festa eta ekitaldietan jotzen. Nerbioi ibaiaren ezker aldean barrena eta Bizkaia osoan, urte guzti hauetan berrehun saiotik gora eman ditu.

Elkarteko dantzariekin duten harreman estuak beraien gustu eta estilora jotzen duten dantzen erreperitorio zabala ezagutzea ahalbidetu die.

Beraiek jotzen duten musikan eta aurkeztutako koreografiatan tradizioan sustraituta dagoela nabarmena da.

Erromerian dantza maisu batek plaza dinamizatzen du ikusleak parte hartzera animatuz eta saioaz gozaraiz. Bertaratutakoei ez zaie dantzatzeko maila altua eskatzen, ongi pasatzeko gogoia baizik. Hau errazteko, musikariek beraien egitaraua gerturatu direnen ezaugarri eta trebetasunera egokitzen dute.

Gaur egun taldean aritzen diren musikariek dultzaina, txirula, whistle eta beste soinu-tresna batzuk jotzen dituen Iñigo Obeso eta Fran Muñoz dantza maisua dituzte buru.

AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Ibagain Kultur, Jolas eta Kirol elkartean izango da. Bertan musikariek egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

Afarirako txartelak Kastro tabernan eros daitezke.

Afaria Kontzejupean: 15 euro

kontzertu honen
laguntzaileak:

